

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxebarriko Udala****Bake Epaile ordezkoa hautatzeko prozeduraren deialdia**

Alkateak, abuztuaren 20ko 0877/2021 Dekretuaren bidez, honako hau xedatu du:

1. Etxebarriko Udaleko Bake-epaile ordezkoa izendatzeko prozesua deitzea.
2. Lanpostuaren betekizunak:
 - 18 urte beteak izatea eta naziotasun espainiarra izatea.
 - Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialeko aurreikusitako ezintasun-edo bateraezintasun-kausarik ez izatea.
 - Alderdi politikoetako edo sindikatuak kide ez izatea eta horien zerbitzuan enplegurik ez edukitzea (ekainaren 7ko 3/1995 Araudiaren 23. artikulua).
3. Eskaera egiteko modua eta epeak: Elorriko udalari zuzendutako eskabidea aurkeztuko da: Sabino Arana 1A, 48450 Etxebarri, 15 egun balioduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Honakoak ere aurkeztuko dira, hala badagokio:

 - NANaren fotokopia.
 - Curriculum vitae eta interesdunak bere asmoa babesteko egokitutako jotzen dituen agiriak.
 - Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialeko aurreikusitako ezintasun-edo bateraezintasun-kausarik ez duela adierazten duen deklarazioa.
4. Udalaren hautaketa-prozedura: Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, udaleko Ogasuna eta Pertsonala Batzorde Informatiboak eskabideak eta horiei erantsitako dokumentuak aztertuko ditu eta eskatzaileen artean bake-epaile ordezkoko bat proposatuko dio, Udalbatzari.

Behin betiko hautaketa udalbatzak egingo du, bere kideen gehiengo osoaren bidez. Eskatzaileak ez balego, udalbatzak askatasunez hautatu ahal izango du (6/1985 Lege Organikoaren 101. artikulua).
5. Deialdiaren iragarkia argitaratzeko agindua ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarki oholean eta web gunean: www.etxebarri.eus.

Etxebarrin, 2021eko abuztuaren 20an.— Alkatea, Loren Oliva